

Patxi Larrea Garmendia
Lezo, Gipuzkoa (1939)

Aurkibidea

Biografia

Zintak

LEZ-044

- **Proiektua:** Lezoko hizkeraren grabaketak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix - Esnaola Arbiza, Imanol
- **Data:** 2001-02-11
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Antzerki taldearen hasierako urteak

- **Erref:** LEZ-044/002
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:04:12

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Frankismo garaian 70. hamarkada inguruan gizonezkoek eta emakumeek bananduta egiten zuten antzerkia Salesianoetan. Inguruko lehenengo herrietakoa izan zen euskaraz antzezten. Gazteek zein adinekoek parte hartzen zuten.

2. Erdarazkotik euskarazko antzerkira

- **Erref:** LEZ-044/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Juanito Berasartek eta beste hainbatek bazuten esperientzia antzerki munduan gerra aurrean ere. Erdarazko giroan hasi zen antzerkian baina berehala ohartu ziren hura ez zela bidea.

3. Euskaraz egin eta eginarazten

- **Erref:** LEZ-044/006
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:16:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Herriko antzerki taldean mugitzen zirenak hamar-hamabi lagun izaten ziren, beste gauza askotan ere aritzen zirenak. Jendea behar bazuten, aise aurkitzen zuten. Euskaraz egiten eta eginarazten ahalegindu izan da. Dantza taldeko esperientzia kontatzen du.

4. Donostiako antzerki taldea erreferente

- **Erref:** LEZ-044/008
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:17:06. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Herriko antzerki taldearekin batera gertatu zen ikastolaren sorrera eta beste hainbat. Euskara eta euskal kulturaren hazia jarri zuten. Donostiako antzerki taldeak Santo Tomasetan euskaraz antzezten zuten. Maria Dolores izaten zuen

laguntzaile, antzerkiak hautatzerakoan ere, eta berak itzultzen zituen erdarazko lanak.

Larrea Garmendia, Patxi | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com